

Elgoibar - 1253. zenb.
XXX urtea - 2022-07-29



TOKIKOM

BARREN

Jai egarriz



BELAUSTEGI BASERRIA

— Jatetxea —

*Denborak atsedena hartu eta...
zentzumenak esnatu egiten
diren lekua*



Argitaratzailea:



BARREN

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkartzaren Topogunea

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR
SOLAS
AUNDIAMENDARO
1983

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren@elgoibarkoizarra.eusbarren.publi@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Koordinatzailea: Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:**

Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia.

Hizkuntza arduraduna: Ainara Argoitia.**Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:**Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren****arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:**Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:**

Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas,

Eduardo Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran,

Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza,

Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia,

Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane

Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola,

Maialen Sanchez. **Inprimategia:** GertuKoop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:**

SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

facebook.com/barrenaldizkariatwitter.com/barreneusinstagram.com/barrenaldizkaria

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Eta zu? Sanbartolomear "purua" sentitzen al zara?



"Jaiak kontzeptua oso desberdin uler dezakegula iruditzen zait"

S an Bartolome jaiak bueltan direla? Ez da posible! Norbaitek jaitsi nazala hodei honetatik. Azken urteetan bizi izan dugunaren ostean gezurra dirudi, ametsetan egongo banintz bezalakoa da. Baina, laga ditzagun bromak, eta ohartu gaitzen baietz, jaiak berriro ere bueltan direla!

Jaiak kontzeptua oso desberdin uler dezakegula iruditzen zait. Batzuek, festa, lagun eta familia giroa, herri-bazkariak, parranda, zoramena, Txiki Eguna, txaranga eta abarrekin lotzen dute, eta askoren iritziz, horiek dira elgoibartar "puruak". Halere, badaude beste batzuk opor egun horietan herritik ihes egitea erabakitzen dutenak; mentalki, fisikoki edo biak batera, abuztuaren 23a iristen denean "txip" aldaketa egiten dutenak. Gehiegizko jende masa, herritartasuna, "kuadrillismoa", opor egun falta eta (batzuetan) eguraldi ona, egoten dira arrazoen artean. Ni beti izan naiz festa zalea, baina onartu behar dut, noizbait izan dudala garai hauetan herritik alde egiteko gogoia. Bi ikuspuntuak dira zentzuzkoak. Garrantzitsuena, posible den heinean, egun hauek aprobetxatzea baita, bakoitzak bere erara.

Beraz, aurrez aipatutako San Bartolomeen zaletu horietakoa bazara eta jaietako egun onena aukeratu beharko bazenu, apustu egingo nuke Txiki Eguna aukeratu zenukeela. Egun berezi honetan sortzen den giroa, adin desberdinetako jendearentzat festa, askotariko musika, arropa zikinarekin sortzen den kiratsa eta beste hamaika ezaugarri aipatuko nituzke abuztuaren 25ean sortzen den giroa deskribatzeko. Baina tira, egun honez gain badira beste hainbat momentu azpimarratzeko modukoak: aspaldian ikusi gabeko lagunarekin topo egiten duzun ueña, lagunartean ondorengo urteetan behin eta berriz errepikatuko den anekdotaren sorrera edo jaietako hasiera emateko zapia jartzen den momentua. Zenbat oroitzen!

Gozatu ditzagun San Bartolome jaiak gure bizitzako azken jaiak izango balira bezala, merezi dugu-eta! Haatik, Elgoibartik alde egiten duen horietakoa bazara edo mentalki jaietatik kanpo egoteko desiatzen bazaude, deskonexio momentu onenak opa dizkizut! Eta noski, egoera hauez gain, beste hainbeste egongo dira ziurrenik eta horien artean besteok festa egunez gozatzeko lan egin beharko dutenak. Zuei ere onena opa dizuet. Gora San Bartolome jaiak!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Abuztuan ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Irailaren 2an jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, abuztuaren 31rako bidali behar da informazioa BARREneko erredakziora. Aita Agirre kulturguneko 3. solairuan gaude. Telefonoa 943 744 112 eta e-posta barren@elgoibarkoizarra.eus. Ordura arte, ondo pasa jaietan!

BARREN



I.URTEURRENA

Maria Jose Ribate Riaño

2021eko uztailaren 31n hil zen, Gernika-Lumon, 54 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**

Zure familia



Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Empresas
Euzkoaldea Eskola Administrazioak
Luzarile Kontakia



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosap@telefonica.net

Gure komunitatean, etxejabe guztiek partaide-kuota bera ordaintzen dute komunitateko gastuetarako. Hala ere, etxebizitzaren erdiak gainerakoen baino bi aldiz etxe-aurre handiagoa dute. Jakin nahiko nuke etxe-aurrea konpontzeko orduan, indibidualizazio kontzeptua aplikatu daitekeen gastuak ordaintzeko orduan eta ordaindu beharreko kopurua etxebizitzaren etxe-aurrearen azaleraren arabera kalkulatu, partaide-kuotaren arabera beharrezan.

Etxebizitza guztiek zehaztutako koefizientearen arabera ordaindu beharko dute. Zuen kasuan, kontribuzio berdina egin beharko dute denek, koefiziente bera dutelako zehaztuta. Etxe-aurrearen azalera ezberdina izatea, beraz, ezin da salbuespena izan. Legez jasota dago gastuen indibidualiziorako aukera, baina ez zuk aipatzen duzun kasu horretarako. Gastuak indibidualki neurtu daitezkeen kasuetan bakarrik heldu dakiok aukera horri: ur kontsumoa, argindarra, berogailua... Baina kasu honetan ezin da zuk diozun irizpide hori aintzat hartu, fatxada elementu komuna delako. Eta beraz, etxe-aurrearen mantentze-lanen gastuak etxejabe guztien artean ordaindu behar dira, partaide-kuotaren arabera, salbu eraikinaren agiriaren beste irizpideren bat zehaztuta dagoenetan.

AHOLKUA: Oker handia litzateke etxe-aurrearen mantentze gastuak alde horretara ematen duten etxeekin lotzea. Irizpide hori ez dago legeak gastuen banaketarako ezartzen duen arauetan jasota.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

3 BLOK
dekorazioa **943 741 552**
606 431 120

*Eskerrik asko, bezero.
Abuztuan ere zurekin!*

Uparitzaga, 14 - Elgoibar biok@biokdekorazioa.com


urkotronik

URKOTRONIK VENDING S.L. 943 20 31 12 urkotronik@urkotronik.com

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarían edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.



Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak

Ondo pasa jaietan!

 **943 742 950**
Errosario kalea, 19
cgestetika@gmail.com
 [@cristina.garcia.estetika](https://www.instagram.com/cristina.garcia.estetika)


 **MAPFRE** **943 740 582**

Faxa: 943 741 707 - San Frantzisko, 40, behea - patxiza@mapfre.com

Ondo pasa jaietan!

AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK ■ ETXE-ASEGURUAK
OSASUN-ASEGURUAK ■ ERRETIRO-ASEGURUAK ■ FAMILIAREN BABESA




Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i
943 748 105
info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

**Gestio programetan
gaude espezializatuak.
Ticket Bai-rako, prestatuak.**

Ondo pasa jaietan!

MAQUINAS ESPECIALES

 **IHARDUN**
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Albitxuri, 1 - 3. Pabillioia, K-L
Tel.: 943 744 466 - Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK



Aitor Nova, Txomin Mujika eta Ricardo Gorriti.

HERRIKO DULTZAINEROEK PIZTUKO DUTE TXUPINA

✍️ Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Dultzaineroen Taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta urteurren hori aintzat hartuta, Udalak sanbartolomeetako txupina botatzeko aukera eman die aurten. Abuztuaren 23an izango da, San Bartolome bezpera egunean. Aitor Nova, Txomin Mujika eta Ricardo Gorriti igoko dira udaletxeko balkoira, eta 13:00etan puntuan piztuko dute jaiiei hasiera emango dien txupina. Une horretatik aurrera, eztanda egingo du jaiak, bi urteko etenaren ostean.

1 972ko Natibitate Eguna zen elgoibartarrek ordura arte ohikoa ez zen doinua estreinakoz entzun zutenean kalean. Dultzaina eta danbor hotsak ziren, eta sasoi hartan entzutea ez zen ohikoa. Sanbartolomeetan Nafarroatik etortzen ziren gaiteroak, baina Gabonetan ez ziren etorri. Herriko hiru gazte ziren: Victor Zubiaurre 'Balle' eta Txomin Mujika dultzainarekin eta Ricardo Gorriti, atabalarekin. 50 urte beteko dira aurtengo Gabonetan beraz, estreinakoz kalera irten zirenetik. 2011n, Victor Zubiaurre hil zenean, Aitor Novak hartu zuen bere lekua, eta gaur egun, sanbartolomeetan ez ezik, San Anton jaietan eta Trinitateetan ere irteten dira Elgoibarko Dultzaineroak herriko kaleak girotzera. Dultzainarako duten zaletasuna benetakoa zen, eta estreinako irtete hura ez zen bolada baterako kontua.

Hasteko eta irauteko, baina, ondo ikasi beharra zuten. Garai hartan nafarrak ziren nagusi, baina zekiten guztia ezkutuan gordetzen zuten. Baina Lacunza anaiek gaita jotzen ikasteko



50. urteurreneko ospakizunen egun handia irailaren 18an izango da. Dultzaina Eguna ospatuko dute, eta dultzaina doinuek hartuko dute herria egun horretan

metodo bat kaleratu zuten eta txistuarekin bazen ere, egin zuten Elgoibarko dultzaineroek ahalegina. Eta hasierako pauso haiek ematen ari zirela, Javier Lacunza ezagutu zuten, Elgoibarren sarri egondako dultzaineroa, eta gerora Elgoibar Udal Musika Bandarekin eta Dultzaineroekin diskoa grabatuko zuena. Pitak egiten erakutsi zien Lacunzak, baina oraindik ere ez zeukaten kalitatezko dultzainarik. Patuak, baina, lagundu zien, eta Eibarren eman zuten kontzertu baten ostean jaso zuten saria. Eibarko Musika Bandaren kontzertu batean zuzendariak eskatu zien Elgoibarko hiru kideei dultzaina joteko, eta ikusleen artean Jaime Arrese zegoen, garai hartan Elgoibarko alkate zena. Kontzertu ostean gerturatu zitzairen, eta dultzaineroek esan zieten instrumentu haiekin ezin zutela hobeto jo. Berriak erosi eta faktura berari pasatzeko esan zien Arresek. Bi dultzaina erosi zituzten, eta hori klabea izan zen Elgoibarko Dultzaineroen ibilbidean.

OSPAKIZUN URTEA

50. urteurreneko ospakizuna urte hasieran hasi zuten. Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkarteak zigilu berezia eskaini zien San Antonen bueltan egiten duten filatelia erakusketan, eta orain, San Bartolome jaiei hasiera emango dien txupina piztuko dute. Ohore bat izango da dultzaineroentzat, eta aldi berean, beraien ibilbidearekiko aitortza.

Dultzaineroen ospakizunen egun handia, baina, irailean iritsiko da. Irailaren 18an Dultzainaren Eguna egingo dute Elgoibarren, eta dultzaina doinuek hartuko dute herria. 50 urteko ibilbidean lagun izan dituzten dultzainero taldeak gonbidatuko dituzte, eta herriko txoko desberdinetan jotzen ariko da talde bakoitza. Udal Musika Bandak ere hartuko du parte egun horretako ekintzetan, eta dultzaineroekin batera



Txomin Garate, Ricardo Gorriti eta Aitor Nova dira Elgoibarko Dultzaineroak eta aurten beraiek botako dute jaiei hasiera emango dien txupinazoa

kontzertua emango dute, Kalegoen plazan. Bazkaria ere egingo dute, eta kalejira ere bai. Dultzainari gorazarre egiteko eguna izango da.



Hasierako dultzaineroak ezkerrean: Ricardo Gorriti, Victor Zubiaurre eta Txomin Mujika.



ASIER GOZATEGI

Gozategi musika taldeko kidea

✍ Ainhoa Andonegi



San Bartolome bezpera egunean joko du Gozategi taldeak Kalegoen plazan. 2018an atera zuten *G puntua* izeneko diskoa, eta plazetan aurkezten hasi zirenean, pandemia iritsi zen. Bi urte egon dira ia geldirik.

Formatu akustikoan eman zituzten emanaldi batzuk, publikoa eserita eta musukoa jantzita, baina hori ez da Gozategiren esentzia. Plazak dantzan jartzea dute gustuko, eta horretara etorriko dira Elgoibarrera ere. 30 urte darama taldeak oholtzan, eta ibilbide horretako abestiak joko dituzte, hasierako etapakoak eta berriak. 23:00etan izango da kontzertua, abuztuaren 23an.

30 urteren ondoren, oholtzan jarraitzen duzue. Ezin dute hori esan talde askok. Zein da zuen sekretua?

Aztera begira jartzen naizenean iruditzen zait oraindik hasiberriak garela. Baina gu aurrera

“Plazak dantzan jartzea da gure zeregina”

begira jartzen gara, eta urteak betetzen goaz. 25. urteurrena bete genuen, eta horrelako zenbaki borobilak beti dira poztekoak, baina lan honetan urterokoari begiratu behar zaio. Urte urtekoa egiten dugu, eta aurrera. Bi urteko etenaldiaren ostean martxan gaude berriz, ilusioz eta indarberrituta. Konfinamenduan egin ditugu gauzatxo batzuk, baina gure musika ez da jendeak eserita entzuteko. Gure lanak plazetan hartzen du zentzua, eta orain itzuli garela, oso gustura gaude. Gu, gustura, eta publikoa ere bai; beraz, hori ikusita, gu are gusturoago.

Trikitia eta pop doinuak fusionatzen lehenengotarikoak izan zineten. 30 urteren ondoren funtzionatzen du formula horrek?

Baietz esango nuke, formula horrekin plazak betetzen jarraitzen dugulako. Guretzako ohorea da plazak horrela ikustea. Belaunaldi desberdinetako jendea biltzen da gure kontzertuetan, eta hori ikustea deskribaezina da. Gaztetxoak beraiek



jaio baino lehenagoko abestiak kantatzen etaaldi berean guraso eta aiton-amonak kalejirak egiten gozatzen ikustea sekulakoa da.

Nola eboluzionatu du Gozategi taldeak 30 urte hauetan?

Hasierako urteetako arrakastaren ondoren atera genituen beste bi disko, eta 2000. urte inguruan eten txiki bat egin genuen, Ainhoa eta Iñigo taldekideak guraso izan zirelako. 2010ean atera genuen gero beste disko bat, eta horrela jarraitu genuen urtetik urterako lanarekin. Oholtzara igotzen gara, publikoa errespetatuz eta kontzertu batetik bestera hobetu beharrekoak ikasiz. Horrela hasi ginen, eta horrela jarraitzen dugu.

Plazan orain dela 30 urteko abestiak ere jotzen dituzue. Gaur egungo egoera sozial eta politikoa ba al dute lekurik kanta haiek?

Zoritxarrez, bai. Gai batzuetan badirudi denbora ez dela pasatu, eta abestiak aztertzen jartzen garenean eguneratuta daudela iruditzen zaigu. Gizarteak ez dakit zenbat eboluzionatu duen urte hauetan. Kanta berriak eta zaharrak jotzen ditugu, baina hasierako haiek dira publikoari gehien gustatzen zaizkionak. Adin batekoei gustatzen zaizkie oroitzapen politikak ekartzen dizkietelako, eta gazteek orain deskubritu dituzten arren, ondo kantatzen dituzte. Abesti zaharrekin, denok gustura. Gu horrek betetzen gaitu gehien, belaualdi desberdinetako jendea elkarrekin dantzan ikustek.

Zer eskainiko duzue Elgoibarko kontzertuan?

2018an atera genuen gure azken diskoa, eta 2019ko uda pasatu genuen disko horrekin emanaldiak egiten. Gero pandemia etorri zen, eta bi urte kendu zizkigun. Beraz, disko hori oraindik ondo aurkezteko daukagu. Azken diskoko kantak eta hasierako abesti zaharrak joko ditugu. Azken batean gure zeregina plazak dantzan jartzea da, eta horretara joango gara Elgoibarrera ere.

Nola bizi izan dituzue pandemiako bi urteak?

Gogorrak izan dira. Beste sektore askotan bezala, musikan ere une gogorrak pasatu ditugu. Eta gu talde bat gara bakarrik, baina gu bezala asko daude, eta talde hauen atzean langile asko: teknikariak, programatzaileak... logistika handia behar izaten dugu eta jende askok egiten du lan sektore honetan. Pandemiaren ondorioz horietako

"Joaten garen lekura joaten garela publikoak egiten digun harrera sekulakoa da"

askok beste zeregin batzuk topatu behar izan dituzte bizirauteko, eta orain, egoerak hobera egin duenean, musika eta kultur ekitaldiak berriz hasi direnean mugitzen, nahiko zailtasun izan dira teknikari eta horrelakoak bilatzeko.

Pandemia ondoren nola aurkitu duzue publikoa?

Oso gogotsu. Harrituta gaude hainbat gauzekin. Batetik, harritu gaitu saio kopuruak, eta bestetik, saio horietan aurkitzen dugun kalitateak. Joaten garen lekura joaten garela, publikoak egiten digun harrera sekulakoa da. Jendea parrandarako eta festarako gogoz dago, eta bero hartzen gaituzte plazetan. Ez dakit gainerako taldeek berdina pentsatuko duten. Guk gurea ikusten dugu, baina pandemia osteko emanaldiak indartsuak ari dira izaten. Joaten garen herri bakoitzean pandemia osteko lehenengo festak izaten ditugu, eta publikoa dantzarako gogoz aurkitzen dugu.

30 urte bete dituzue. Noiz arte izango dugu Gozategi oholtzan?

Momentuz aurrera segitzeko asmoa daukagu. 30 urte egin ditugu, eta ea beste 30 betetzen ditugun! Taldea sortu eta arrakasta izaten hasi ginenean medioetan elkarrizketak egiten hasi zitzaizkigun, eta orduan beti esaten nuen nire ametsa zela hamabost urteren ondoren Gozategi talde izaten segitzea. 30 pasatu dira! Nire ametsa bi aldiz bete da. Ez nuen nahi Gozategi pasoa pasatzen zen talde horietakoa izatea, musika panoraman geratzea nahi nuen, eta hori lortuta, ahal dugun bitartean aurrera segituko dugu. Taldekideok musikariak gara, beti honetan jardun dugu eta honek betetzen gaitu. Hau da egiten dakiguna eta egitea gustatzen zaiguna, beraz, ahal dugun heinean honetan jarraitzea da gure asmoa. Gure esentzia plazetan dago, eta hor jarraitu nahi dugu. Pandemiaren egin genituen saio akustikoak ere politikak irten ziren, baina hori ez da gure eszenatokia. Antzokietan ere gauza onak egin daitezke, eta egiten dira, baina Gozategi plazako taldea da.

Erraldoi txikiak



Elgoibarko erraldoietako bi dira Altzola dorretxeko jaun-andreak: Aszensio Altzola eta Katalina Ibarra; eta bi erraldoi horien miniaturak aterako ditu Elgoibarko Udalak. Abuztuaren 22an aurkeztuko dituzte erraldoi txikiak jendaurrean.

 Ainhoa Andonegi

Herriko erraldoietako bik, Aszensio Altzolak eta Katalina Ibarrak, herriko pertsonaia historikoak irudikatzen dituzte. Aszensio Altzola Elgoibarko Altzola auzoan jaio zen eta bertako ibai-portutik jardun zen lanean. Altzolatar merkatarien familiako gizon nabarmenetakoa izan zen. Hiru galeoi izan zituen distantzia handiko merkataritzan aritzeko: Euskal Herriarekin ez ezik, Sevillarekin, Portugalekin, eta Hondurasekin, Mexikorekin eta Santo Domingorekin izan zituen merkataritza-harremanak. 1549an ezkondu zen Katalina Ibarrarekin, eta ezkondu zirenean jaso zuen dorretxea jabetzan, bere osabaren eskutik. Aszensio Altzola Elgoibarko

alkate ere izan zen 1564-1565 urteetan, eta 1572an hil zen.

Bi erraldoi horien gomazko erreplikak izango ditu Elgoibarrek aurrerantzean. Erraldoi eta buruhandiek herrian duten estimazioa ikusita, iaz erabaki zuen Udalak Elgoibarko erraldoien miniaturak egitea. Bikotea egitea adostu zuten, eta Elgoibarko pertsonaje historikoen bikotea aukeratu zuten txikian egiteko.

Iruñeko Olentzero enpresari egin zioten enkargua. Olentzero enpresa izan zen erraldoien miniaturak egiten lehenengo enpresa. Europako erraldoi bikotearen gomazko miniaturak izan ziren egin zituzten lehenengoak, Josemiguelereico eta Josephamunda. Iruñeko erraldoiak egin zituzten



ondoren, eta ordutik ez dute atsedunik izan. Enpresa gehiago ere hasi ziren zeregin honetan, eta gaur egun herri askotako erraldioen panpinak daude, Idoia Ortega eta Gorka Alonso elgoibartarrek iaz Kultur Etxean ipini zuten miniaturazko erraldioen erakusketara hurbildu zirenek egiaztatu ahal izan zuten moduan Euskal Herri osoko 180 bat erraldoi txiki dituzte guztira, eta abuztuaren 22tik aurrera, Elgoibarkoak erosteko aukera ere izango dute.

San Bartolome jaietako egitarauaren barruan, hilaren 22an aurkeztuko dituzte Aszensio Alzola eta Katalina Ibarra txikiak. 19:00etan izango da ekitaldia, Kultur Etxean. Behin aurkezpena eginda, Azkue argazki dendan erosi ahal izango dira. 5.893,18 euroko aurrekontua izan dute erraldoi txikiek. Moldea egiteak 4.360 euroko kostua izan du, eta gainerakoa pieza kopuruaren kostua izan da. Guztira 40 bikote eskatu dituzte.

Miniaturak gomazkoak dira, eta umeen jostailu moduan homologatuta daude. Goma nahiz erabiltzen duten pintura ez dira toxikoak, eta edonork jolasteko moduko piezak dira. 24 zentimetroko neurria dute.

Miniaturak egiteko prozesua luzea da. Lehenengo moldea egin behar da argizariz, eta behin bezeroak molde hori ontzat ematen duenean, molde hori erabiltzen da gomazko figura egiteko.



Azkenik, margotu egin behar da, erraldoi originalaren itxura berberarekin. Beheko argazkietan ikusi daiteke Aszensio dagoeneko prest dagoela, baina Katalina margotze prozesuan dago oraindik.

Zalantzarik gabe erraldioen eta buruhandien urtea izaten ari da aurtengoa Elgoibarren. Lehenik eta behin, bi urteko itxaronaldiaren ostean aurrenekoz kalera irten ziren Udalak erosi zituen lau buruhandi berriak (Basajaun, Basandere, Tartalo eta Mari), joan zen apirilaren 30ean. Gero, maiatzaren 28a, egun gogoangarria izan zen buruhandi eta erraldoi zaleentzat, estreinakoz egin baitzuten Elgoibarren Erraldioen Topaketa. Bergarako, Bilboko, Txantreako eta Elgoibarko erraldioen konpartsek euren erraldioen erakusketa egin zuten goizean Kalegoen plazan, eta arratsaldean kalejiran ibili ziren.





 Iago Manoel Souto Lorenzo

KIROLA IKUSGARRI

Elgoibarko Udalak, Kirol Patronatuaren eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailaren bitartez eta Ongarri Argazkilari Elkartearekin elkarlanean, kirol argazkien lehiaketa antolatu du, eta dagoeneko jakinarazi dituzte irabazleak.

18 lagunek hartu dute parte, eta 55 argazki aurkeztu dituzte guztira. Iñigo Loiola eta Maialen Gurrutxaga zinegotziek, Maialen Aranguren gazteria teknikariak, Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariak eta Jokin Mujika Ongarri argazkilari elkarteko kideak osatu dute epaimahaia eta erabaki dute Gazteen Saria ez ematea, argazkiek ez zutelako kalitate nahikorik. Irabazleak "erraz" aukeratu dituztela esan dute antolatzaileek, eta ez dela lehia handirik egon aurtengoan. Abuztuaren 22an banatuko dituzte sariak.

HELDUEN SARIA

1. SARIA: Aritz Gordo Perez (Arrasate). 300 euro.
2. SARIA: Iago Manoel Souto Lorenzo (Ponte Caldelas). 200 euro.

HERRIKO SARIA

Clara Mejias Barrio (Elgoibar). 200 euro.



 Clara Mejias Barrio



Erreserbak:
943 575 278



San Bartolome jaietarako menuak:

- Askotariko kroketak (urdaiazpikoa, odolkia eta ondoak)
- Santixo tomatearekin egindako salmorejoa
- Burrata-entsalada
- Temperatura baxuan eginiko masailak
- Gazta-tarta hotza
- Ardo zuria, krintza eta kafea

40€

- Askotariko kroketak (urdaiazpikoa, odolkia eta ondoak)
- Santixo tomatearekin egindako tartarea
- Txipiak bere tintan
- Mandarina eta marakuiaren sorbetea
- Temperatura baxuan egindako arkume-belaunpea
- Gazta-tarta hotza
- Ardo zuria, krintza eta kafea

54€

asador
ibai-ondo



943 256 028

*Egin San Bartolome jaietarako
zuen erreserbak!*
Aurten bai!

LANBROA
SanMiguel

943 740 806

MENU LANBROA

Lehen platerak:

- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

25€

Bigarrena aukeratzeko:

- Azpizuna
- Masailak bere saltsan
- Bakailaoa tomatearekin
- Legatza labean erreta
- Ukondoa patatekin
- Txerri sahieskia erreta

Ondo pasa jaietan!

Gabi
jatetxea

**SAN BARTOLOME
JAIETAKO MENUA**

943 741 230

*Ondo pasa
jaietan!*

APERITIBOIA:

- ▶ Urdaiazpiko iberikoa tomatetan bustitako ogi-bxingortuarekin.
- ▶ Ahate-entsalada epela marrubi-ozpin-olioarekin.
- ▶ Arrautza, urdaiazpiko eta perretxiko kurruskaria.

BIGARREN PLATERA AUKERAN:

- ▶ Zapoa plantxan, donostiar-erara.
- ▶ Bakailaua pil-pil erara.
- ▶ Azpizuna plantxan.
- ▶ Iberikoaren masailak ardo beltzarekin gisatuak.

POSTREA AUKERAN:

- ▶ Hostorea, krema eta txokolatearekin.
- ▶ Tiramisua.
- ▶ Limoi moussea marrubi izozkiarekin.
- ▶ Sorbetea.

42€



Ondo pasa San Bartolome jaietan!

943 366 3 77

www.dentalaldaz.com



Lasarte-Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolome, 22

Tolosa
San frantzisko, 39

Kultur eskaintza



Bi urteko etenaren ostean, dena prest dago sanbartolomeetarako. Pandemia osteko lehen San Bartolome jaiak izango dira aurtengoak, eta eragileek ahalegina egin dute oroimenean gordetzeko jaiak izan daitezen. Egitaraua bete-betea dator, eta deneteriko ikuskizunak izango dira. Adin eta gustu guztietarako emanaldiak iragarri dituzte, bakoitzak bere gustukoena aukeratzeko. Datozen orriotan jaso ditugu kultur ekitaldirik esanguratsuenak.

Gozategi

Abuztuak 23, 23:00, Kalegoen plazan

Gozategi musika talde oriotarrak 30 urte bete ditu. 1992an eman zuten lehen kontzertua, hirukote modura. Soinua eta panderoa jo eta abestu ere egiten zuten Ainhoa eta Asier Gozategi anai-arrebek, eta haiekin batera, Iñigo Goikoetxea baxu joleak osatzen zuten taldea. Hiru urte geroago, 1995ean, estudioko lehen lana plazaratu zuten *Gozategi* izenburupean. Garai hartakoak dira *Nor, nori, nork* edo *Muxutxuek* abesti ezagunak, baina ordutik estudioko beste lan batzuk ere egin dituzte. Azkena, 2018an kaleratu zuten, *G puntua* izenburupean. Hasierako eta egungo kantak uztartzen dituzte emanaldietan.





Turisteando

Abuztuak 24, 19:00, Kalebarren plazan

Bidaia-agentzia batek stand bat jarri du kalean, bere produktu izarra sustatzeko: "Neurrira egindako bidaia birtualak". Agentziak etxekoandre bat sarituko du itsas bidaia batekin, eta bidaia hori zuzenean antolatuko dute. Bere fantasia guztiak askatuko dira bidaia honetan, batere konbentzionalak ez diren fantasiak. Trapu Zaharra konpainiak emango du ikuskizun hau San Bartolome Egunean. Euria egiten badu Maalako parkean izango da.

Zea Mays

Abuztuak 24, 23:00, Kalegoen plazan

1997ko ekainean Bilbon sortutako taldea da: Asier Basabe (bateria), Ruben Gonzalez (baxua), Iñaki Imaz (gitarra) eta Aiora Renteria (ahotsa) dira taldekideak. Euskadi Gazteako maketa lehiaketa irabazi zuten, eta horrek eman zien estreinako diskoa grabatzeko aukera. Azken urteotan Aiora Renteriaren osasun arazoengatik geldione bat izan du taldeak, baina orain indarberrituta eta taldearen 25. urteurrena ospatzeko prest datoz. Pandemia garaian ere izan genituen Elgoibarren, Herriko Antzokian. Jaietako emanaldia Kalegoen plazan izango da.



Rockalean

Abuztuak 25, 20:00

Musika munduan denbora luzea daramaten bost musikarik osatutako taldea da. Izenak berak argi uzten du beraien estiloa: rocka egiten dute, kalean, baina pop doinuak ere jotzen dituzte. Talde ezagunen kantuen bertsioak egiten dituzte, abesti orijinalaren esentzia mantenduz. Normalean ikusten ez den musika formazio berezia osatzen dute: bi pertsona baterian, gitarra, soussaphone-a eta ahotsa. Herritarren gozamenerako erreperitorio luzearekin etorriko dira.





Psicoclown

Abuztuak 25, 22:30

Musika- eta antzerki-ikuskizuna da: Zortzi pailazo zoro iritsiko dira herrira, eta dena hankaz gora jarriko dute, Jokerren esanetara. Batez ere, perkusioan oinarritzen da ikuskizuna, eta era bateko eta besteko estiloak eta erritmoak joko dituzte, pirotekniaz eta danborretan jarritako argi-efektuez baliatuta. Kalegoen plazan hasiko dute kalejira.

Puro Relajo

Abuztuak 27, 23:00, Kalegoen plazan

Puro Relajo talde nafarra da, kanta mexikar eta latinoamerikarrak abesten dituen. Aski ezaguna da taldea honezkero Elgoibarren, pandemia aurretik ere jaietan jo zutelako, eta pandemian bertan ere, Herriko Antzokian eman zutelako kontzertua. Herriz-herri dabilta mariatxi doinuak zabaltzen, eta sanbartolomeetako Baserritarren Egunean iritsiko dira Elgoibarrera.



Turukutupa

Abuztuak 28, umeen bazkari ostean, Bolatokian

Sergio Lopez de Landache eta Victor Garcia de la Torre sortu zuten taldea 2006an, Gasteizen. Birziklapenean eta zaborraren kudeaketa kreatiboan oinarrituta sortu dituzte ikuskizunak, herritarren kontzientzietan eragiteko asmoz. Erabilitako material guztiak, musika tresnak edota eszenografiak, birziklatutako materialekin eginda daude, zaborrari bigarren erabilera bat emateko eta honen bidez, gure kontsumo ohiturak berrikusi eta ingurumena zaintzeko beste ikuspuntu bat emateko.



Kantu Kolore

Abuztuak 28, 17:30, Maalan

2016an abiatu zuten Kantu Kolore proiektua, irakaskuntzari lotutako zazpi lagunek. Abesti eta ikuskizun didaktikoen eskutik, umeei bizitzarako balioak transmititzea dute helburu, beti ere doinu dibertigarrien bidez. *2022ko zuzeneko ikuskizuna* lanarekin iritsiko dira Elgoibarrera Umeen Egunean.



Basajaun

Abuztuak 28, jubilatuen bazkarian

Basajaun musika taldea lau kidek osatzen dute. Erromeria taldea da, eta denetariko abestiak jotzen dituzte. Euskal abestiak, rock klasikoa, patxanga dantzagarriak, punk-a... Orain eta betiko era askotako abestiak dituzte erreperatorioan. 1998tik dihardu taldeak plazetan, eta aurtengo sanbartolomeetan jubilatuen bazkal-ondoreneko arratsaldea girotzera etorriko dira. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez abesten dute.



Udal Musika Banda

Uztailak 24, soka-dantzaren ostean, Kalegoen plazan

San Bartolome Eguneko ekintzen barruan ezin da falta Udal Musika Bandaren kontzertua. Egun horretako protagonista nagusienetarikoa da Musika Banda, txistulari, dultzainero eta Haritz Dantza Taldearekin batera. Goizean kalejiran irtengo dira, eta meza osteko soka-dantzaren ostean, kontzertua emango dute, Kalegoen plazan. J.M. Saezek zuzenduko du kontzertua eta hauek izango dira joko dituzten piezak:

EL CAMINO..... Jose Vicente Egea
ORDIZIA..... Eduardo Mocoera
LORD TULLAMOR..... Carl Wittrock
BEN AL SAHAGUI..... F. Valor
AKAN - Herrikoia..... Arm. F. Peñafiel





Elgoibarko musikarien erritmora

2018an sortu zuten herriko hainbat musikarik Elgoibarko Musikarien Elkarte, eta horren barruan biltzen dira gaur egun herriko musika taldeak. Pedro Mugurutzako eskola zaharrean egokitu zituen Udalak entseguetarako lokalak, eta horrek ahalbidetu zuen baita ere elkartearen sorrera. Apirilean aurkeztu zuten elkarte jendaurrean, eta orain, berriz batuko dira Maalako oholtzan. Elgoibarko zazpi talde igoko dira banan-banan eszenatokira, eta bakoitzak bere estiloan, dantzan jarriko dute Maalako parkea.

EME

(Elgoibarko Musikarien Elkarte)

Abuztuak 26, 20:00-02:00

Maalako parkean

Eleaners 20:00

- ▶ Sorrera urtea: 2010
- ▶ Musika mota: Rock Klasikoa
- ▶ Taldekideak: Gabi Agirregomezkorta (gitarra)
Jokin Zubillaga (bateria)
Oskar Gonzalez (baxua eta ahotsa)

Ilunabar 20:50

- ▶ Sorrera urtea: 2021
- ▶ Musika mota: Rock Gotikoa
- ▶ Taldekideak: Laura Peralta (Ahotsa)
Fernando Urkiri (Bateria)
Igor Lezertua (Gitarra eta Ahotsak)

Ellie Jensen 21:40

- ▶ Sorrera urtea: 2020
- ▶ Musika mota: Blues, Funky, Rock
- ▶ Taldekideak: Andoni Lersundi (Baxua)
Eneko Bergaretxe (Bateria)
Xabier Larrañaga (Gitarra eta ahotsa)



Islabat 22:30

- ▶ **Sorrera urtea:** 2021
- ▶ **Musika mota:** Post-Rock
- ▶ **Taldeakideak:** Asier Olabarrieta (Gitarra eta Ahotsa)
Jesus Jimenez (Gitarra eta Sintea)
Aitzol Mujika (Baxua)
Andoni Alonso (Bateria)
- ▶ **Kolaborazio Berezia:** Nerea Gil (Ahotsa)
Silvia Hernandez (Pianoa)



Muzak 23:20

- ▶ **Sorrera:** 2020
- ▶ **Musika mota:** Rock progresiboa
- ▶ **Taldeakideak:** Aitor Sagarmendi (Baxua)
Ruben Irigoyen (Bateria)
Joanes Iñurrieta (Gitarra eta Ahotsa)




Jeizys Tyros 00:10

- ▶ **Sorrera:** 2022
- ▶ **Musika mota:** Punk-Rock
- ▶ **Taldeakideak:** Danel Legorburu (Bateria eta Ahotsa)
Iñigo Arrese (Gitarra eta Ahotsa)
Joseba Astigarraga (Baxua eta Saxoa)
Aitor Asenjo (Gitarra eta Koroak)



Makis 37 01:00

- ▶ **Sorrera:** 2021
- ▶ **Musika mota:** Rock
- ▶ **Taldeakideak:** Gaizka Uranga (Bateria)
Miguel Beraza (Baxua eta ahotsa)
Julen Gutierrez (Gitarra eta ahotsa)
Alex Gonzalez (Gitarra eta koroak)





Gauetz ere, Mauxitxa!



2019a izan zen Mauxitxaren urtea. 50. urteurrena ospatu zuten, eta urtea bera bezalaxe, sanbartolomeak ere bereziak izan ziren Mauxitxako kide guztientzat, bai orduko taldekideentzat eta baita aspaldikoentzat ere. Txiki Eguna izan zen handiena, baina txarangako kideak gehiagorako gogoz zeuden, eta zapatu gauean inprobisatutako kalejira egin zuten. Puro Relajo mariatxien taldeak kontzertua eman zuten Kalegoen plazan, eta haren ostean bildu ziren txarangako musikariak, instrumentuak hartu eta ekin zioten euren lanari. Jaietako gau-festari amaiera eman nahi izan zieten, Iruñeko sanferminetan egiten duten *Gaixoa ni* moduko bat eginez, eta "sekulakoa" izan zela aipatu dute musikariek. "Zapatua zen, Baserritarren Eguna, eta egun horretan kanpoko jende asko etortzen da Elgoibarrera. Kalea jendez gainezka zegoen, eta denak jarri genituen dantzan".

Gerora etorri zen Koronabirusaren pandemia, eta ospakizun guztiak bertan behera geratu ziren. Bi urtez bertan behera geratu dira sanbartolomeak ere, eta herritarrak bezala, aurtengo jaietarako gogotsu daude Mauxitxako kideak: "Bi urteko etenaren ostean pixkat ahaztuta daukagu jai-giro hori zer den ere,

baina badakigu txupinazoaren ondoren jotako lehenengo notaren ostean festan barneratuko garela topera". Eta egunez ez ezik, aurten berriz ere irtengo dira gauetz kalejiran, eta gainera egitarau ofizialean sartu dute ekitaldia: "Udalari komentatu genion 2019koa oso ondo irten zela eta ondo iruditu zitzaien". Beraz, duela hiru urteko egoera errepikatuko da aurten ere, eta Baserritarren Egunean, Puro Relajo mariatxi taldearen kontzertuaren ostean, kalejira egingo dute Kalegoen plazatik Maalara arte. Hori izango da aurtengo berrikuntza nagusia, baina aipatu behar da baita ere Gazteen Eguneko goitibeheren ostean egin ohi zuten kalejira ez dutela egingo. Arrazoiak ere eman dituzte: "Gazteen Eguneko eguerdiko kalejira hori nahiko deskafeinatua izaten zen. Gazteak poteoan eta bazkaritarako prestatzen egoten dira ordu horretan, eta kalean ez da jende askorik egoten. Gaueko kalejiragatik ordezkatzea erabaki dugu".

Bi urteko etenaren ostean bereziak izango dira jaiak denontzat, baina Mauxitxa txaranga barruan dauden kide berrientzat are bereziagoa, zain-zain egon baitira jaietan debuta egiteko. Herritarren "Mauxi, mauxi" oihuak sekula baino ozenago entzungo dira aurten.



Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 899 316

E-posta: 013431aa@hezuntza.net



Jai zoriontsuak!

lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL

Ondo pasa jaietan!



Olaso industriagunea - Olaso kalea, 15-L. 67 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 312 - www.lizardi.net

**ONDU PASA
JAIXAK!!**



elgoibarko
herri eskola



GOKI

erreformak




FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOAK

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42



Guztion festa

Jaume Gubianas ilustratzaile kataluniarraren kartelakirekiko du aurtengosan bartolomeetako egitaraua. Guztion Festa jarri dio izena, eta irudian sartu ditu sanbartolomeetako elementu guztiak. Musika, festa eta alaitasuna transmititzen ditu kartelak.

Aurtengo ediziora 20 kartel aurkeztu dituzte, 2020an baino lau gehiago, eta epaimahaik

Gubianasen lana aukeratu du. Gubianasek 800 euroko saria eskuratu du.

Epaimahaia honakoek osatu dute aurtien: Andrea Arriolak, Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeburuak; Jesus Mari Sarasua Ongarri Argazki Taldeko kideak; Encarni Migales Atabal Danborrada Elkarteko kideak eta Iñaki Raigoso Kokoe Komiki Taldeko kide ohiak.



Abuztuak **22**, astelehena

19:00 Jaietako kartel lehiaketaren sari banaketa. Ekitaldi berean kirol argazkien lehiaketako sariak ere banatuko dituzte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:30 Iaz jaiotako umeei ongi-etorria. Zapia jarriko diete. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Jarraian, Elgoibarko miniaturazko erraldoien aurkezpena.

Abuztuak **23**, martitzena *San Bartolome bezpera*

10:00-12:00 Bisita gidatua, Kalegoengo San Bartolome parrokiara. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek.

10:30 Jaien hasiera, San Lazaro egoitzan eta Eguneko Zentroan. Adinekoei zapia jarriko diete.

12:30 Larrain dantza herrikoa. Kalegoen plazan.

13:00 Txupinazoa eta kanpai-jotzea. Aurten, Elgoibarko dultzaineroek botako dute txupinazoa, 50 urte bete dituelako dultzaineroen taldeak.



SEGUR-arno
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

SEGUR-arno
CONSEJO REGULAR DE ASESORES
ASEGURAJA MUTUAKOITIA

Ondo pasa
jaietan!

Deba kalea 2, behea - 2 0 8 7 0 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)
Telf.: 9 4 3 7 4 8 0 1 3 · Fax: 9 4 3 7 4 8 1 3 5
segurarno@segurarno.com · www.segurarno.com

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162



Maria Urizar
 Ildeopaindegi • Peluqueria

Ondo pasa jaiak!

San Bartolome kalea 15
 Tel.: 943 74 44 89
 ELGOIBAR Gipuzkoa



MEKANOSA
 Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

**SAUBER INDUKZIO-GAINA,
1-6600 SERIEA**



199 €

- Indukzioa
- 3 eremu
- 9 potentzia-maila
- Programatzaillea
- Touch kontrola
- Haurrentzako blokeoa

Ondo pasa jaiak!

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Segidan, Mauxitxa Txarangaren kalejira.

16:00-20:30 Haur eta nerabeentzako parkea. Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

16:00-19:30 Quadak, Kalegoen plazan.

16:30 Sorpresa. Jubilatuen Biltokian.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezen zikleten kalejira. Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin. Lekueder, buruhandirik gabeko gunea.

18:30 Uluka Batuka. Batukada erreibindikatzailea. Kalegoen plazan.

19:00 Mauxitxa Txarangaren kalejira, danborradarekin batera. Kalebarren plazatik.

20:00 Ignazio Bereziartuaren salbea. Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokiari. Udalbatza parrokiari joango da, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

23:00 Gozategi taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

Abuztuak **24**, eguaztena *San Bartolome Eguna*

9:00 Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen diana.

9:45 Udal Txistulari taldearen diana.

10:00 Udal Musika Bandaren kalejira.

10:45 Herriko zaindariaren prozesioa. Udalbatzak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

11:00 Meza Nagusia. San Bartolome parrokian. Parrokiako abesbatzak, Udal Txistulari Taldeak eta Haritz EDT-k hartuko dute parte.

Jarraian, soka-dantza. Haritz EDT eta Udal Txistulari taldearen eskutik.




Abuztuko ordutegia
08:00etatik-15:00etara.
Abuztuan 15etik 22ra
itxita.

**ONDO PASA
JAIETAN!**

Santa Ana, 18 - Elgoibar
943 741 864



KARAKATE
Jatetxea

Ondo pasa jaietan!

Olasope, 1 - Elgoibar

karakatejatetxea@hotmail.com



KIMA
DENTISTIA

Ondo pasa jaietan!

Hitzordua hartzeko:
646 563 706

Urazandi 9, behea - Elgoibar / Lersundi 1-3 - Deba www.kimabioestetika.webkoibox.com

GYS SPORT **CASA** ELGOIBAR
ASTIGARRAGA

Errosario, 18
943 743 268

**Abuztuan, goizez, zabalik,
9:00etatik 13:00etara**

Ondo pasa jaietan!



Nº1
en zapatillas

Errosario, 21, behea
943 744 386

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Ondo pasa jaiak!

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457



Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO Errosario kalea, 30
943 741 492

HITZORDUA BEHARREZKOA DA

HEPA iragazkiak dituen
AIRE-ARAZGAILUA duen lokala.

Ilea zaintzeko **KERASTASE**
eta **L'OREAL** tratamenduak.

Abuztuko ordutegiak:
www.peluqueriajoseantonio.com




Revent
Eibarbus
grupo JonAnder
www.grupojonander.com



Ondo pasa jaietan!

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com
943 201 733



Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua. Kalegoen plazan, herriko dultzaineroek lagunduta. Zuzendaria: J.M. Saez.

16:00-20:00 Haur eta nerabeentzako parkea, Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

16:00-20:00 Pedaldun kart-ak. Kalegoen plazan.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin batera. Lekueder buruhandirik gabeko gunea.

18:00 Profesional mailako pilota partidak. Ikastolako frontoian.

19:00 Kale antzerkia: *Turisteando*. Trapu Zaharra taldearen eskutik, Kalebarren plazan. Euria bada, Maalan.

23:00 Zea Mays taldearen kontzertua. Kalegoan plazan.

Abuztuak **25**, eguena *Txiki Eguna*

8:00 Diana, Mauxitxa txaranga eta herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Arnoren zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00 Uretako txirrista erraldoia. Aita Agirren.

12:30 Mauxitxa txarangaren kalejira.

13:00-16:00 Fotokola: "Jaietan ere, indarkeria matxistari, ez!". Kalebarren plazan.

17:30 Haurrentzako egurrezko jolasak. Bolatokiko parkean.

19:30 Rockalean. Kalegoen plazan hasita.

22:30 Psicoclow. Kalegoen plazan hasita.





Leire
ilepandegia
peluqueria

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

Ile eta buru-azalerako
tratamendu organikoak

Abuztuan egun hauetan zabalik:

- ◆ Abuztuaren 19, 20, 22 eta 23 goizez zabalik (08:30etik 13:30etara)
- ◆ Abuztuaren 30etik aurrera betiko ordutegian.

Ondo pasa jaietan!




IRIONDO
KIROLAK

MENDI eta KALERA KO KIROL MODA
ELGOIBAR

Eskerrik asko, bezero!

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

Abuztuak **26**, barikua

Nerabeen eta gazteen eguna



8:00 Diana, herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Arnoren zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

12:00 Goitibehera eta drift trike jaitsiera, Azkuen. Izenematea 11:30ak arte, irteera puntuan.

18:00 Funbox factory: dirty jump eta trialsin. Kalegoen plazan.

19:00 Herri kirolen taldekako triatloia. Aita Agirre plazan.

20:00-02:00 Kontzerturak: EME (Elgoibarko Musikarien Elkarte). Eleaners, Ilunabar, Ellie Jensen, Islabat, Muzak, Jeizys Tyros, eta Makis 37.

22:00 Profesional mailako pilota partidak, Ikastolako frontoian. (ETB1-en zuzenean emango dute).

Abuztuak **27**, zapatua *Baserritarren eguna*

09:30 Ganadu lehiaketan parte hartuko duten ganaduzaleei ongietorria. Haritz EDT-k eta Udal Txistulari Taldeak egingo diete harrera, Kalebarren plazan.

Jarraian, Baltzola eta lagunak trikitalarien kalejira.

10:30 Euskadiko Limousin Ganadu Txapelketa. Sigmako probalekuan.

11:00 Sagardo Txapelketa eta dastatzea. Sallobente elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

11:00 Gazta Txapelketa eta salmenta. Kalamua elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.



0 **OLAIA MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA

Trenbide kalea, 21 behe, ezk.
Elgoibar
943 242 805

Abuztuaren 6tik 29ra itxita.
Abuztuko ordutegia: 9:00tatik 17:00etara (Jarraian)

Adi! Irailean tratamendu eta produktu leerro berriak

Imprenta ARRILLAGA s.l.
Fundada en 1950
Trenbide, 13-bajo
Tel.: 943 74 01 87
arrilagasl@outlook.com
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)

IMPRESION OFFSET - DIGITAL ETIQUETAS, CARTELES, FOLLETOS, CATALOGOS
DISEÑADOR GRAFICO FOTOCOPIAS BODAS, COMUNIONES, DEFUNCION

Osasun gida

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA EUKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurroratua eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

TXILLARRE
eko denda

ETXERA
ERAMATEKO
ZERBITZUA



San Bartolome kalea, 29, behe-Elgoibar
635 008 496

- ❖ Baserriko produktu ekologikoak.
- ❖ Garaian garaiko otarrak.
- ❖ Aukera zabala elikagai ekologikoetan.
- ❖ Kosmetika biologikoa.
- ❖ Banaketak: Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro.
- ❖ Ashtanga yoga klaseak eta hipoprosibo klaseak astero.
- ❖ Fisioterapia, osteopatia eta nutrigenomika kontsultak (Natalia Giménez).

p.ekologikoak@gmail.com





12:30 Elgoibarko Kale Kantariak.
Kalebarren plazatik.

13:00 Sagardo lehiaketako sari banaketa.
Kalegoen plazan.

13:00 Bertsolariak: Uxue Alberdi, Mikel Mendizabal eta German Meabebasterretxea.
Kalebarren plazan.

14:00 Gazta Txapelketako sari banaketa.
Kalebarren plazan.

17:00 Baltzola eta lagunak trikitilarien
kalejira.

18:00 Mintxeta Memoriale:
Sanbartolomeetako Harri Jasotze txapelketa.
Kalegoen plazan (Euria bada, Ikastolako frontoian).
Mintxeta eta Belaustegi harri irregularrekin lan egin beharko dute partaideek.

18:30 Kale antzerkia: Zirika Zirkus taldearen *Hemendikara* ikuskizuna.
Kalebarren plazan. (Euria bada, Maalako parkean).

20:00 Ganadu txapelketako sari banaketa,
Sigmako probalekuan.

23:00 Kontzertua: Puro Relajo taldea.
Kalegoen plazan.

Jarraian, Mautitxa txarangaren kalejira.

ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar






ARAMBURU
BITXIDENDA

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

HAIR'S lleapaindegia
San Bartolome, 6 behea
943 531 279

ASTEARTETIK OSTIRALERA:
09:00 - 12:30
15:00 - 19:00

LARUNBATETAN:
09:00 - 14:00

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN EGUNA

Orraztu Moztu
12€ 12€
Garbitu, moztu
eta orraztu
24€

Ondo pasa jaietan!



Abuztuak **28**, domeka *Jubilatuen eguna*

8:00 Diana, herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra, Arnoren zezenekin.
King-Kong-en hasita.

9:00 Etxaniz Memoriala txirrindulari lasterketa. Trenbide kalean hasiko da eta 12:00etan izango da helmuga, Pedro Migel Urruzuno kalean. 12:30ean banatuko dituzte sariak, Kalegoen plazan. Antolatzailea: Gure Bide elkarte.

12:00 Hegaluze parrillada. Atabal Danborrada Elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.

12:00 Euskal Herria Kopako finalerdia: S.D. Eibar - Alaves. Mintxetan.


12:30 Jubilatuentzako meza. San Bartolome parrokian.

14:30 Jubilatuen bazkaria. Olaizaga kiroldegian. Basajaun musika taldeak girotuko du.

19:00 Dantza Solteko Txapelketa. Haritz EDT-k antolatuta, Udal Txistulari Taldearen eta trikitilarien laguntzarekin.



Ondo pasa sanbartolomeetan!



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359 www.uzurioptika.com

Aurtengo festei begirada berezi bat eskaini!

Gora sanbartolomeak!

SURYA
BELAR-DENDA

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenaetik ostiraleraz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Keapaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

ASESORIA GOAR

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 beheka - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

Abuztuak **28**, domeka
Umeen Eguna



11:45 Umeentzako entzierroa.
King-Kong-etik Aita Agirre plazaraino.

Jarraian, zezentxo eta poniak, Aita Agirre plazan.

11:30-14:00 Haurrentzako marrazki lehiaketa. Elizako arkupeetan.

14:00 Haurrentzako herri bazkaria. 7tik 12 urtera artekoentzat. Elizako arkupeetan. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Freskagarriak eta postrea banatuko dituzte.

Jarraian, umeentzako herri kirolak. Kalegoen plazan.

Aldi berean, Turukutupa ikuskizuna. Bolatokiko parkean.

17:00 Marrazki lehiaketako sari banaketa. Maalako parkean.

Segidan, Kantu Kolore taldearekin dantzaldia, Maalako parkean.

18:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Mauxitxa txarangarekin. Haurrak mozorrotzeko deia egin dute.

G R E M I O E N G I D A

ARROZTEGIA

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Alibixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
20670 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523

ongi@ongi.elgoibar.com
www.ongi.elgoibar.com

ARROZTEGIA

iraolagoitia

arroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosof@gmail.com

943 743 490

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ARROZTEGIA

**MAR
ARROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
Faxa: 943 743 565

tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

ARROZTEGIA

Arroztegia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaarroztegia@gmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosano kalea, 15 behea - Elgoibar


- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

ARROZTEGIA

BIENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.us
info@biena.us



Meka

Lanbide Eskola

Ondo pasa San Bartolome jaixetan!

gora herri jaiak!

**Lor-
tuiko
dugu**

ehbildu



Mekanizazio lanak



Fabrikazio gehigarria



BM
bronymec
Termoplastiko eta
konpositeetan adituak



www.elgoibarikastola.eus

Elgoibar Ikastolak
opa dizkizue
Jai
zoriontsuak!

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



CAMPUS

INGELESA - FRANTSESA - ALEMANA - ITALIERA - TXINERA

IRAILETIK HASITA

2022-2023 KURTSOKO IKASTAROAK

Maila guztiak.

Titulu ofizialak.

Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.

Ikastaroak atzerrian.

Multimedia gela.

Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

**ENPRESA ITZULPEN ETA
INTEPRETAZIO ZERBITZUAK**

Esperientzia zabala duen lantaldea:

* Teknikoa (makina-erreminta).

* Komertziala.

* Nazioarteko proiektuak.

Goi-teknologiaren erabilera.

Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.

Prezio lehiakorrak.

Ondo pasa jaietan!

Uparitzaga, 12 behea - Azkue auzoa (IMH) - 20870 ELGOIBAR
943 744 040 - www.ils.es - ils@ils.es

Etxaniz Memoriala: 75 urte pedalei ematen



Etxaniz Memorialak 75 urte beteko ditu aurtengo sanbartolomeetan, eta diamantezko ezteiak ospatzeko jantzita dator. Berrikuntzak eta aldaketak izango ditu aurtengo probak. Hasteko, ez da ohi bezala San Bartolome Bezpera Egunean jokatu. Izan ere, abuztuaren 23an Espainiako Txirrindulari Itzulia Gipuzkoan zehar ibiliko da, eta ertzainek ezin zuten bermatu egun berean Etxaniz Memorialeko segurtasuna. Hori dela-eta, lasterketa egunez aldatzeko eskatu zieten Gure Bide elkarte arduradunei. Beti jaien bueltan egiten denez proba hau, egunez aldatu arren, sanbartolomeetan egitea zuten helburu, eta abuztuaren 28rako ezarri zuten egutegian. Bernardo Ezenarro kaletik irtengo dira txirrindulariak, 9:00etan. Jubilatuta eta Umeen Eguna da, eta egun horretan sokamuturra egoten da, beraz, segurtasuna bermatzeko irteera neutralizatua izango da Eulogio Estarta auzo ingurura arte. Txirrindulari eta antolakuntzako kide guztiak N-634 errepidean daudenean hasiko dute ofizialki lasterketa.

Ibilbidea azken urteotakoa izango da. Elgoibartik Maltzagarako bidea hartuko dute Bergarara arte, eta handik Elgoibarrera itzuliko dira berriz. Maalako errotondan Azkarate aldera hartuko dute errepide zaharretik, eta Arriaga auzora jaitsiko dira Azkarateko autobide berritik.

Buelta berbera egingo dute hiru aldiz, guztira 130 bat kilometroko ibilbidea osatuz.

Sari banaketa berezia

Helmuga Pedro Migel Urruzuno kalean izango da, 12:00ak aldera, eta sari banaketa 12:30ean egingo dute Kalegoen plazan. Sari banaketa berezia izango da 75. urteurren honetan, eta horretarako bi gonbidatu berezi ekarriko dituzte Elgoibarrera: Abraham Olano txirrindulari ohia eta Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kirol kazetaria. Olano (Anoeta, 1970) 11 urterekin hasi zen txirrindularitzan, eta 1992an debutatu zuen profesionaletan. 95ean hiru etapa garaipen lortu zituen Espainiako Itzulian, eta urte berean Errepideko Munduko Txapelduna izan zen. 98an Espainiako Itzulia irabazi zuen. Horrez gain Italiako Giroan podiumera igotzea ere lortu zuen hainbat ediziotan, eta 2002an hartu zuen erretiroa.

Historia

Lasterketa hau lehenbiziko aldiz 1947ko abuztuaren 8an jokatu zuten, Juan Etxaniz Arrieta txirrindulariaren omenaldi moduan. Etxaniz herriko txirrindularia zen, eta 19 urte zituela hil zen. C.D. Elgoibarrek antolatzen zuen hasieran, eta 1959tik aurrera Gure Bide Txirrindulari Elkarteak antolatzen du.

Aske bizi

Berdintasunean, aske eta feminismitik bizitzeko jaiak antolatu ditu Maalako Jai Batzordeak. Gune Askean egitarau propioa izango dute, eta egongo da non aukeratu. Aldarrikapena eta festa uztartuko dituzte sanbartolomeetan ere. Kontzertuak, erreka jaitsierak, presoen eskubideen aldeko bazkaria eta elkarretaratzea antolatu dituzte, besteak beste.

EGITARAUA

Abuztuak 22, astelehena

Gaztetxian urteurrena

11:00 Erreka garbiketa

18:00 Kamiseta banaketa

19:00 Bertso poteoa

Abuztuak 23, martitzena

Elkartasun Eguna

15:00 Presoen eskubideen aldeko herri bazkaria. Tiketak: Jai Alai, Lanbroa eta Iturrin (15 euro).

Ondoren, Andoni Ollokiegirekin kantaldia.

22:00 Kontzertuak: Debrassband eta Amildegi

Abuztuak 24, eguaztena

Bartola Eguna

14:00 Bazkari feminista (Ez mixtoa)

Ondoren, bingo musikatua

18:00 Triki poteoa

21:00 Larrain dantza herrikoia

22:00 Hemen taldearen kontzertua

Abuztuak 25, eguena

Txiki Eguna

20:00 Laket taldearekin erromeria

Abuztuak 26, barikua

Gaztiak gera barren eguna

14:00 Herri bazkaria

17:00 Erreka jaitciera

19:00 Karro poteo jolasekin

Abuztuak 27, zapatua

Baserritarren Eguna

19:00 Elektrotxaranga

22:00 Kontzertuak: The Clayton
Bad sound system

San Bartolome jaiak aske bizitzeko aukera eskainiko du Gune Askeak. Abuztuaren 22an hasiko dituzte ekintzak, eta egun horretako barruan, Gune Askeko jaietako logotipo lehiaketa irabazi duen irudiarekin sortutako kamisetak banatuko dituzte. Gazte Asanbladakoek #gaztiakgerabarren logo lehiaketa antolatu dute eta Jone Alvarezek aurkeztutako logotipoa aukeratu dute kamisetetara eramateko. Kolore bakarreko logoa izan behar zuen, eta "2022" urteak azaldu behar zuen diseinuan. Lehiaketara aurkeztutako diseinuak Instagramen duten kontuan jarri zituzten ikusgai eta boto gehien jaso dituen aukeratu dute irabazle. Kamiseta soinean eta zapia lepoan jarrita hasiko da festa Gune Askean. Gaztetxearen urteurren eguna, Elkartasun Eguna, Bartola Eguna, Txiki Eguna, Gaztiak gera barren Eguna eta Baserritarren Eguna ospatuko dituzte. Indarkeria eta eraso guztietatik salbu bizi nahi dituzte jaiak, aske eta feminismitik.



#GAZTIAK GERA BARREN

Askotariko eskaintza



Debrass Band

Abuztuak 23, 22:00

Debrass Band taldea 2018an sortu zuten. Musika talde instrumentala da, eta musika estiloari dagokionez, funky, soul eta techno musika egiten dute bereziki.

Andoni Ollokiegi

Abuztuak 23, bazkalostean

Maalako parkean

Pasai Donibaneko musikaria da, eta plazarik plaza aritzen da abesti ezagunen bertsoiak eginez. Kantuz eta umorez betetzen ditu oholtzak, eta gozamenaz, berriz, oholtzapeak. Umetan hasi zen gitarra klasikoa eta solfeoa ikasten, baina berak argi zeukan gitarra elektrikoa ikasi nahi zuela. Dena utzi eta bere kontura hasi zen gitarra elektrikoa jotzen. Musika asko entzuten du, euskal musika nahiz atzerrikoa, eta berak ere talde ezagunen bertsoiak egiten ditu, euskal taldeetatik eta Shakira bitarte. Abesti nahasketa hori eskertzen du publikoak.



Amildegi Abuztuak 23, 22:00

Lau elgoibartar eta ermuar batek osatzen dute Amildegi boskotea: Julen Zubizarreta (gitarra), Markel Uranga (gitarra), Unax Esnaola (ahotsa), Gaizka Uranga (bateria) eta Gari Lamariano (baxua). Konfinamendu aurretik hasi ziren taldea sortu nahian, baina itxialdi ostera arte itxaron behar izan zuten. Pedro Mugurutzako eskoletako lokaletan hasi ziren serio entseatzeko iazko maiatzean, eta azaro aldera hasi ziren kontzertuak ematen. Talde ezagunen bertsoiak egiten dituzte, punk-rock estiloan. Pare bat aldiz jo dute Elgoibarko gaztetxean, baina Maalan jotzeko ilusioz daude.





Hemen Abuztuak 24, 22:00

Musikaz gozatzeko eta Euskal Herri feminista baten alde borroka egiteko asmoz sortu dute heMeN taldea lau eibartar gaztek. Maialen Bergara, Maitane Fariñas, Miren Hazas eta Naroa Kareaga dira taldekideak. M8 plataformako kideak ziren laurak, eta bakoitzak instrumentu bat jotzen zekien. M8ko bazkalostea girotzeko batu ziren ia kasualitatez, eta ordutik sariago elkartzen dira. Beraien lehen musika proiektua dute hau, eta ilusioz ari dira kontzertuak ematen.

Laket Abuztuak 25, 20:00

Zigor Sagarna (Tolosa, 1973) baxu jotzailearekin eta Maitane Ayerza (Asteasu, 1986) trikiti jotzailearekin batera, Iñaki Berastegi hernaniarrak (tronpeta), Iñaki Odriozola (tronpeta) eta Beñat Larrauri tolosarrek (tronboia), Mikel Santxez beratarrek (bateria), Jon Guadix usurbildarrak (gitarra) eta Naiara Urresti getariarrak (abeslari eta pandero jotzailea) osatzen dute Laket taldea. 15 bat urte dira erromerietan aritzen direla. Txiki Eguneko arratsaldea girotuko dute.



The Clyton Abuztuak 27, 22:00

Rock, blues eta punk ukituak ekarriko dizkigu Aramaioko The Clayton musika taldeak. *Phoenix* izeneko diskoa kaleratu zuten iaz, Bilboko Silver Recordings estudioan grabatuta, eta lan horretako bederatzi kantuak aurkeztuko dituzte, beste zenbait kantekin batera. Disko honetan rock klasiko estiloko doinuak dira nagusi. Zuzeneko indartsua du taldeak, eta Maalan ez dira oharkabean pasatuko.



Bad sound Abuztuak 27, 22:00

2003. urtean Irunen sortutako musika taldea da, eta reggae, dancehall eta ragga estiloak jorratzen ditu, besteak beste. Egungo taldekideak Selektah Stepi (DJ), Masta (MC) eta Kenitra (MC) dira, baina aurrez Brujo (MC) eta DjSucio (DJ) ere aritu izan dira taldean. Reggae jaialdi baterako gonbidapena zela-eta, Stepi Brujo, Masta eta Kenitra Mc-ak bildu zituen 2003an, DjSuciorekin sound system bat muntatzeko. Kontzertuak ematen hasi eta horrela sortu zuten taldea.



Brigada feminista, etxera laguntzeko



NARRUTSIK

Talde feminista

✍️ Ainara Argoitia

Sanbartolomeetarako brigada feministak antolatuko ditu Narrutsik-ek, eraso sexistak saihestu eta etxera buelta beldurrik gabe egin dezagun. Era berean, indarkeria matxistaren kontrako protokolo bat ere zehaztu dute, erasoei erantzun kolektiboa emateko. Ainhitze Beristain, Ane Astiazaran eta Nerea Gurrutxaga taldekideek eman dituzte argibideak, talde oso baten izenean.

Brigada feministak antolatu dituzue jaietarako. Zerk bultzatuta?

Ainhitze: Beharrak. Bi urteko etenaren ondoren, berriz ere jaiak eta kaleko bizitza elkarrekin gozatzeko aukera izango dugu Elgoibarren ere, eta gogotsu gaude denok, baina ikusi dugu jaiak ospatu dituzten beste herri batzuetan eraso sexistekin lotutako zenbat salaketa izan diren eta antolatu beharra ikusi dugu; batu nahi izan ditugu indarrak autodefentsa feministan.

Nerea: Erasoa gertatu direlako eta gertatzen ari direlako ikusi dugu antolatu beharra. Jakin genuenean beste herri batzuetan izan ziren eraso harira zenbait udalerritan udaltzainak jartzen ari zirela emakumeei etxera laguntzeko-eta, iruditu zitzaigun autodefentsaren aldeko apustua indartu behar genuela. Ikusten genuen Poliziaren beharrik ez genuela; bagenezkela emakumeok erremintak elkar babesteko, gure artean antolatuz gero. Horregatik egin genuen deia herrian brigada feministetan parte hartzeko.

Ainhitze: Bai, hori da. Era berean, iruditzen

zitzaigun brigada feministek eman zezaketela bidea talde feministara jende berria erakartzeko ere, eta ikusi da ez genbiltzala oker.

Protokoloa aipatu duzu. Badira urte batzuk estreinakoa aurkeztu zenutenetik. Egin daigun errepasso bat.

Ainhitze: Bai, 2017ko sanbartolomeetan aurkeztu genuen estreinako protokoloa, Narrutsik sortu genuen urtean. Emakume askok parte hartu zuten lanketan eta sekulako harrera izan zuen. Aurkezpena ere publikoa izan zen, gune askeko oholtzan aurkeztu genuelako, nahi genuelako jai-eremu horretan biltzen ginen guztiok geure sentitzea. Geroztik, protokolo hori beharren arabera fintzen joan gara, eta kontzientzietan eragiten. Bestetik, erabaki genuen emakumeen egun bat ere behar genuela sanbartolomeetan eta adostu genuen abuztuaren 24a Bartola Eguna izendatzea. Aurten, egitarau beteagoa antolatu dugu Bartola Egunerako: herri-bazkaria, bingo musikatua, trikitipoteoa

eta kontzertu bat antolatu ditugu. Emakumeak igoko ditugu oholtzara ere, Eibarko Hemen taldea ekarriko dugulako.

Nerea: Bai, bi gauza dira, protokoloa eta Bartola Eguna, baina protokoloaren harira zehaztu nahi nuke azken urteotan ikusi dugula eraso homofoboak eta transfoboak asko ari direla ugaritzen eta horregatik indarkeria matxistaren kontra sortutako protokoloa ere moldatu dugula, errealtate hori barnebiltzeko.

Ane: Gune askea da gurea eta garbi laga nahi dugu kolektibo zapalduen kontra egiten duen pertsonak ez daukala lekurik gure jai-eremuan. Jaietako lehenengo egunean, abuztuaren 23ko gauean, aurkeztuko dugu protokoloa, oholtzan, kontzertuak hasi aurretioxan. Argi lagako dugu non gauden eta gure balioak zeintzuk diren.

Jaien testuinguruan ugaritu egiten dira indarkeria matxistaren aurka eta harreman parekideak bermatzeko egiten diren kanpaina komunikatiboak. Zein da zuen mezua? Zeri erantzuten dio zuen protokoloak?

Ane: Emakumeei gozameneko espazioak eskaintzea eta erasoan aurrean emakumea subjektu aktibo moduan agertzea. Protokoloaren bi alderdiak, berriz, erasoaren jasan duen pertsonari babesa agertzea eta erasotzailea jai-eremutik kanporatzea dira. Elkargune more bat jarriko dugu txosnagunean. Horrez gain, Narrutsikook eskumuturreko more bat jantziko dugu laguntza behar duenak argi izan dezan norengana jo eta Gazte Mugimenduko txosnan pertsona bat izendatuko dugu gurekin zubi-lana egiteko. Txosnetan txanda egingo duten talde edo kuadrilla guztiei azaldu zaie zein izango den gure lan egiteko modua, eta denei esan zaie txosnako arduradun horrek beteko duela zubi-lana erasoaren jasan duenaren eta gure artean. Gazte Mugimenduko txosnan ardura hori beteko duen pertsona emakumea izango da, ahal dugun neurrian. Txandak egingo dituzten denek dute beraz protokoloaren berri eta denek dakite lehenengo lana erasoaren jasan duen emakumea babestea izango dela. Leku segurua bat eskainiko diogu biktimari, erabaki dezan zer egin nahi duen, eta laguntzeko izango gaitu gu ondoan. Behin hori bideratuta dugunean, alarmak joko du txosnagunean, musika kenduko dugu,

zerbitzeari lagako diogu, igoko gara oholtzara eta zabalduko dugu eraso bat gertatu dela, eta kanporatuko dugu erasotzailea txosnagunetik. Ez dugu guztiz zehaztuta hori nola egingo dugun, baina uste dugu, gu, emakumeak, izan behar garela erasotzailea kanporatuko dugunak, baldin eta txosnagunetik irteteko aginduari entzungor egiten diola ikusten badugu. Espero dugu puntu horretaraino ez iristea eta erasoaren egin duenak onartzea gune askean lekurik ez duela, baina bestela, batu eta bota egingo dugu.

Nerea: Zehaztu nahi nuke gure protokoloa gune askerako sortua dela, baina gure jai-eremutik kanpora erasoaren bat jasaten duenari laguntzeko ere bagaudela eta ez dugula erasotzailerik onartuko txosnagunean.

Erasotua babestea izango da lehenengo pausoa. Gurearen ezaugarritako herrietan zailagoa izaten da hori askotan: aise zabaltzen dira erasotzaileen izen-abizenak, zein motatako eraso izan den jakin nahi izaten dute askok eta erasotzailea sarri gertuko izaten denez, izaten da hura babesteko joera halako bat ere. Nola egin asmo diozue aurre horri?

Nerea: Txanda egingo dutenei esan dieguna da eurek ez dutela esku hartu behar horretan. Norbait erasoaren bat gertatu dela esanez joaten bazaie, pertsona hori gurekin harremanetan jartzea izango da haien lana. Zubi-lan hori egitea, alegia. Guk eramango dugu pertsona hori babesleku batera, eta behin seguru sentitzen denean, jarriko dugu martxan protokoloa. Biktimaren ondoan egongo gara eta errespetatuko dugu haren nahia. Ez dugu behartuko ezertara. Entzungo diogu, aurkeztuko dizkiogu dauzkan aukerak eta hartzen duen erabakian lagunduko diogu.

"Gune askea da gurea eta garbi laga nahi dugu kolektibo zapalduen kontra egiten duen pertsonak ez daukala lekurik gure jai-eremuan"

"Askotan munstro bat irudikatzen dugu erasotzaitzat, baina, ez, izan daiteke gure lagun bat, kuadrillako bat, eta erasoak ere ez du zertan izan eraso ikusgarri bat"

Nola egin duzue hori?

Ane: Bi txosna izaten dira sanbartolomeetan: Gazte mugimenduarena eta presoen eskubideen aldekoena, eta Narrutsik Gazte mugimenduan ere badagoenez, guk parte-hartze zuzena izaten dugu Gazteen Egunaren antolaketan eta abarretan. Bileretan parte hartu dugu, eta bilera horietan azaldu diegu gainerako denei protokoloa. Bilera horietako batean, bukaeran, neskak bakarrik gelditu ginen eta hor benetan eroso sentitu nintzen ni neu. Kezka, babesa eta erantzuteko konpromisoa sentitu nituen. Ekarpenak ere jaso genituen. Era berean, baina, txandak egingo dituzten kuadrillatakoekin ere batu gara, banaka. Horrez gain, kartelak ere pegatuko ditugu txosnetan, aurrekoetan moduan. Era berean, jaietako egunean bertan ere gogoraziko zaie denei. Esan diegu denei gai honek lehentasuna duela, badakigulako txanda batzuetan denak mutilak izango direla eta halakoetan erasoak jasan duen emakumeak ez duela jakiten normalean nola jokatu. Saiatu gara hori dena lantzen. Esan diegu denei zein garrantzitsua den eraso bat salatzerako joaten denari sinistea ere.

Nerea: Bai, gertatzen da hori, baina kontziente izan behar dugu herriko jaietan normalean erasotzailea ere gertukoa izan daitekeela eta ez dela beti erraza hori kudeatzen. Askotan munstro bat irudikatzen dugu erasotzaitzat, baina ez, izan daiteke gure lagun bat, gure kuadrillako bat, eta erasoak ere ez du zertan izan eraso ikusgarri bat, jende guztiaren aurrean jotzea esaterako. Eta izaten da gehiago ere. Izaten da herrian zer gertatu den jakin nahi bat, eta batez ere pertsona ezagutzen badute. 'Bortxaketa bat izan da ala izan da diskusio bat?' jakin nahi izaten du jendeak, horren arabera baloratzeko zer jarrera hartu-edo, eta hor ere sekulako lanketa egin behar izan dugu, eraso guztiak eraso kontsideratzeko. Eraso bat

gertatzen bada, guk ez dugu erasoaren inguruko zehaztapenik emango. Biktimak erabakiko du Polizian salatu, publiko egin, isildu... Hori ez da gure lana.

Brigadak berak nola funtzionatuko du?

Ane: Lehenagotik bageneukan halako saretze bat eginda aurrez egin ditugun ekintzetatik eta jende horrekin guztiarekin whatsapp talde bat sortu dugu. Hogei lagun baino gehiago gaude talde horretan, baina momentuan ez ditugu txandak-eta banatu, oraindik denbora dagoelako eta uste dugulako jende gehiago ere batuko zaigula. Egia esan oso pozik gaude izan dugun erantzunarekin. Ikusten dugu jendeak ikusten duela behar bat daukagula eta konpromiso bat hartzeko prest ere badaudela asko.

Esan duzuetik ondorioztatzen dut brigadan parte hartuko duten denak emakumeak izango direla, ala?

Nerea: Bai, denak.

Etxeratze laguna behar duenak nora jo behar du?

Ainhitze: Momentuz esango nizuke eskumuturreko moreak dauzkagunongana gerturatu daitekeela edo Gazte Mugimenduko txosnako arduradunarengana, zeina identifikatuta egongo den baita ere, eta jarriko dugula brigadetakoekin harremanetan. Izan ere, brigaden funtzionamenduaren inguruan lotu behar ditugu oraindik ere kontu batzuk, baina horretarako zenbat lagun gauden jakin behar dugu lehenengo. Printzipioz, hori bai, bi pertsonako brigadak izango dira.

Eraso sexisten gaia festetan gero eta gehiago izaten da kontuan, hein batean inoiz baino kontzientzia handiagoa dagoelako. Narrutsik sortu zenuenetik igartzten duzue zentzu horretan hobera egin denik?

Ainhitze: Nik uste dut baietz, behintzat emakumeon artean, ez baitakit gizonen kontzientzietan eragina neurri berekoa izan den. Nolanahi ere, kontua ez da horrenbeste eraso gehiago izaten direla, baizik eta kontzientziak gora egiten duen heinean, neska gehiago ausartzen direla salatzerako, eta hori igarriko da leku guztietan. Dena den, nik neuk eraso gehiago izaten diren ustea ere badut.

DANTZA ETA KOLOREA, FOLKLORE JAIALDIAN

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Asier Orbea

Georgia, Guinea Bissau eta Nafarroako dantzen erakustokia izan da aurtengo folklore jaialdia. Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideak izan ziren oholtzara irteten aurrenekoak, eta Erronkari bailarako Ttuntuna dantzatu zuten. Ondoren, University Flying Georgians konpainiako kideek Georgiako musika eta dantzen erakustaldia eman zuten, eta gero, Afrika mendebaldekoa egin zuen jauzi jaialdiak Guinea Bissauko Netos de Bandim taldeko kideak oholtzara igo zirenean. Haritz dantza taldekoen emanaldiak itxi zuen jaialdia. Aurten, Jon Lizarralde omendu dute folkloreaken 35 edizioetan parte hartu duen dantzari bakarra delako, eta hil berri den aita izan zuen gogoan dantzariak. Une hunkigarria izan zen. Argazki gehiago barren.eus





Masaje zentrua
Idoia Garcia
 Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221
Ondo pasa jaixetan!


ZA
 ZURE ALDE S.L.
 Nerea Olea Lequerica
 Abokatua
 Zibil-Jabetza horizontala
 Komunitateen kudeaketa
 Jausoro plaza, 3 - behea
 Elgoibar
 943 531 351 / 685 708 606
 zurealde.elgoibar@gmail.com

ASKETA S.L.
 ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
 SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS
 943 191952
ondo pasa jaixetan!!!

estetikaalire
 Upaiz zaharra, 1 behea - Elgoibar - 943 531 636
Abuztuko ordutegia:
 09:30etatik 15:00etara.
Abuztuaren 8tik 21era itxita.
 #alireestetika @alireestetika

- ▶ Laser depilazioa, zerbitzu osoa
 IPL + DIODO
 (baita beltzarandutako azaletan ere)
- ▶ **Especialistak gara:**
 - Aurpegia gaztetzeko tratamenduetan
 - Azala zaintzeko aholkularitzan
 - Gorputza findu eta gogortzean
 - Goi mailako kosmetikan
 - Depilazio elektrikoan (baita bekainak ere)

jai alai



kutxabank **k**

DOÑA MERCEDES

LEGADO MURUA

Ondo pasa
jaietan!



Zabalik! DOÑA MERCEDES MURUA

San Bartolome kalea, 29, behea

Gosari bereziak!
Bertan eginiko ogiak
Muruako betiko gozoak!
Bisita gaitzazu!



943 732 239



DOÑA MERCEDES

San Frantzisko kalea, 21, behea.



943 742 652



OBRADOREA

Zizilion Kalea 4, 1.solairua, 1.nabea



943 498 285



679 126 891



admin@donamercedes.es



[@dona_mercedes_obrador](https://www.instagram.com/dona_mercedes_obrador)

whatsappez enkarguak



943 742 652

SANTANA BETE-BETEA

✍️ 📷 Ainara Argoitia

Jai-egarriz ziren mendarorak eta igarri da partehartzean. Jende asko ibili da santanetan, eta bereziki jendetsuak izan dira Kuadrilla Eguneko herri-bazkaria eta Motxaila Banden agur-saioa, eta Elektrotxufila elektrotzarangaren kalejira eta Zopilotes Txirriaosen kontzertua. Baina une berezi gehiago ere izan dira jaietan. Nork bereak izango ditu, baina euskal dantza taldekoen jaialdia, esaterako, askoren ahotan ibili da. Ordubete inguruko saioa izan zen, eta bukaeran, modu batera edo bestera Mendaron dantza sustatzen jardun direnentzako esker-on hitzen ondotik -aipamen berezia egin zieten Amaia Ajuriagoikoa eta Imanol Arantzamendi dantza-irakasleei-, bi lagun omendu zituzten: Rogelia Horrillo, aurten dantzarako erabili dituzten arropetako asko josi zituen jostuna, eta Leonor Barreras, taldeko dantzari beteteranoa. Berezia izan zen, baita ere, Santa Ana eguneko aizkora txapelketa, besteak beste herriko bi gazte lehiatu zirelako, Uxue Ansorregi eta Hodei Ezpeleta, eta haietako batek, Ezpeletak, txapela jantzi zuelako Xuban Kañamaresekin bikotea osatuta. Bere osoan izan da berezia aurten, baina, Santa Ana eguna, behar ez zuen arrazoiengatik: Gregorio Larrañaga Mañukorta, Mendaron hain estimatua zen bertsolaria, hil zela jakin zen bezperan, Santa Anan behar zuen jaija Garagartzan hasi zen, eta inprobisazioari inprobisazioa lotu zitzaion. Garagartzan hasi, eta plazan eman behar izan zioten errematea bertsolariek beren lanari, eta ez zuen jaiak besteetako molderik jarraitu. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus













Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko
eta **MENDAR**ko
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin
behar duzun jakiteko,
sartu **barren.eus**-en eta
egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu
azalpen guztiak.

ehbildu

gora
santanak!

**Lor-
tuko
dugu**

29 BARIKUA

19:30 Hausnarketa saioa. Juan Cruz Igartuak emango du. Isiltasun Eskolak antolatuta.

30 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa Kalebarren plazan.

SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIK

Abuztuak 6 eta 10

6 ZAPATUA

11:30 Txapliguak, jaiei hasiera emateko.

11:45 Hitzaren ospakizuna.

Jarraian eta egunean zehar, Naiara eta Lanberri trikitaliak.

14:00 Bakailao jana, bereziki, auzoko aiton-amonentzat, eta bestelako bazkariak bertarutzen direnentzat.

16:00 Umeentzako jolasak.

18:00 Niala magoaren ikuskizuna.

Jarraian, txokolatada.

20:00 Emakumezkoen Bolo Txapelketa.

23:00 Erromeria, Bide Batez taldearekin.

00:00 Bolo txapelketa.

01:00 Sorpresa, jende artean.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da egun osoan zehar, 11:15etik goizaldeko 05:00ak aldera arte. Antolatzaileek eskatu dute auto partikularretan ez joateko, ez delako egongo aparkatzeko lekurik.

10 EGUAZTENA

San Lorentzo Eguna

11:00 Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren, salda eta txorizoa.

AZKUEKO JAIK

Abuztuak 16

16 MARTITZENA

San Roke Eguna

Meza, Azkueko ermitan.

SANTUMOTZ EGUNA

Abuztuak 7, domeka

11:00 Hitzaren liturgia, Santumotzeko zelaian.

Gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

12:00 Imanol Goikoetxeren erakustaldia harriarekin.

Jarraian, Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariak.

Tarteka, Ansorregi eta Larrañaga soinu-joleak.

14:30 Lagunarteko bazkaria San Pedro jatetxean. (34 euro).

Izena emateko: 943 740 010.

Egun guztian zehar, soinu-joleek eta bertsolariek alaituko dute eguna.

SAN ANTOLIN JAIK

Irailak 2 eta 3

2 BARIKUA

San Antolin Eguna

11:00 Meza

Jarraian, salda eta txorizoa.

18:30 Txapel eta oliba hezur jaurtiketa.

Ondoren, triki kalejira Laja eta Lutxurdiorekin.

21:00 Bertso afaria Iker Zubeldia eta Maialen Akizurekin. (25 euro)

Ondoren, erromeria Laja eta Lutxurdiorekin.

3 ZAPATUA

16:30 Umeentzako jolasak

17:00 Mus txapelketa

18:00 Tortilla txapelketa.

18:30 Herri kirolak: Mikel Agirre, Uxue Ansorregi, Karmele Gisasola eta Unai Osa.

21:00 Triki-afaria (22 euro).

22:30 Jone Uria eta Julene Otegi musikarien erromeria.

01:00 Errifaren zozketa

1. saria: Kanariar Uharteetarako bidaia

2. saria: Janariz eta edariz beteriko eskorga.

02:00 Txokolatada

Aire libreko zinea
(Kalegoen plazan)



'Greenland:
el último refugio'
29 barikua: 22:30



'Agur Etxebeste'
30 zapatua: 22:30

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK:

- Egunez: 09:00-22:00
- Iluntzean: 20:00-22:00
- Larunbatak: 09:00-14:00

UZTAILA

- | | | |
|------------|----------|---------------|
| 29 BARIKUA | ■ Ibañez | ■ Barrenetxea |
| 30 ZAPATUA | ■ Yudego | ■ Yudego |
| 31 DOMEKA | ■ Yudego | ■ Yudego |

ABUZTUA

- | | | |
|---------------|-----------------|-----------------|
| 1 ASTELEHENA | ■ Barrenetxea | ■ Barrenetxea |
| 2 MARTITZENA | ■ Fernandez | ■ Yudego |
| 3 EGUAZTENA | ■ Yudego | ■ Yudego |
| 4 EGUENA | ■ Oruesagasti | ■ Barrenetxea |
| 5 BARIKUA | ■ Barrenetxea | ■ Barrenetxea |
| 6 ZAPATUA | ■ Ibañez | ■ Garitaonandia |
| 7 DOMEKA | ■ Ibañez | |
| 8 ASTELEHENA | ■ Yudego | ■ Yudego |
| 9 MARTITZENA | ■ Barrenetxea | ■ Barrenetxea |
| 10 EGUAZTENA | ■ Fernandez | ■ Garitaonandia |
| 11 EGUENA | ■ Yudego | ■ Yudego |
| 12 BARIKUA | ■ Oruesagasti | ■ Yudego |
| 13 ZAPATUA | ■ Barrenetxea | ■ Barrenetxea |
| 14 DOMEKA | ■ Barrenetxea | ■ Barrenetxea |
| 15 ASTELEHENA | ■ Oruesagasti | |
| 16 MARTITZENA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 17 EGUAZTENA | ■ Arriola | ■ Arriola |
| 18 EGUENA | ■ Fernandez | ■ Arriola |
| 19 BARIKUA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 20 ZAPATUA | ■ Oruesagasti | ■ Arriola |
| 21 DOMEKA | ■ Oruesagasti | |
| 22 ASTELEHENA | ■ Arriola | ■ Arriola |
| 23 MARTITZENA | ■ Ibañez | ■ Garitaonandia |
| 24 EGUAZTENA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 25 EGUENA | ■ Arriola | ■ Arriola |
| 26 BARIKUA | ■ Fernandez | ■ Arriola |
| 27 ZAPATUA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 28 DOMEKA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 29 ASTELEHENA | ■ Oruesagasti | ■ Arriola |
| 30 MARTITZENA | ■ Arriola | ■ Arriola |
| 31 EGUAZTENA | ■ Ibañez | ■ Garitaonandia |

IRAILA

- | | | |
|-----------|-----------------|-----------------|
| 1 EGUENA | ■ Garitaonandia | ■ Garitaonandia |
| 2 BARIKUA | ■ Arriola | ■ Arriola |

Fernandez:
Herriko enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106



Goiko argazkia 1953ko abuztuaren 25ean ateratakoa da, Txiki Egunean. Tradizioari jarraituz, umeak zuriz jantzita ageri dira argazkian, gerriko eta zapi gorriarekin eta abarketa zurigorriekin, dotore. Ezkerreko umea Txomin Mujika da, Elgoibarko dultzainero ezaguna, eta ikusten denez, ume-umetatik zeukan txirularako zaletasuna. Erdikoa Julian Azkue da, argazkilari ezaguna eta negarrez ageri den neskatxoa Mariasun Gabilondo, Gabi tabernakoa.

Beheko argazkia berriagoa da, 1980ko abuztuaren 24koa; San Bartolome Egunkoa. Egun dotorea da San Bartolome Eguna, eta argazkiko mutilen jantziek ere hala dela erakusten dute. Vermouth-a hartzeko egin zuten hitzordua, eta Errosario kalean atera zuten argazkia.

Ezkerretik eskumara: Luis Mari Zubiaurre 'Balle', Joseba Konde, Jose Ignacio Jauregi eta Juan Luis Sarrigarte.





SAN FRANTZISKO-54
ELGOIBAR

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!!

18
ETXEBIZITZA

%65
SALDUTA

BEHAR DUZUN GUZTIAREKIN
WWW.SF54.EUS

1, 2 EDO 3 LOGELATAKO ETXEBIZITZAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK - ARETO SOZIALA -
HEGOALDERUNTZ, BALKOI EDO TERRAZA HANDI ETA EGUZKITSUAK DITUZTEN ETXEBIZITZAK



SUSTATZAILEA

Inmobiliaria ORIO FRANTZISKO
SUSTATZAILEA
ELGOIBAR
943 89 44 33

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

GABILONDO
ETXE AGENTZIA

943 744 467



Jai
zoriontsuak!

